

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Berango

Aurkibidea

Udalerria: Berango

Sarrera



Bizkaiko barnealdean Bilbo Handia eskualdean dago, Uribe-kosta azpieskualdean. Sopela du mugakide iparraldean, Urduliz ipar-mendebaldean, Erandio hego-ekialdean eta Getxo mendebaldean. Lehen, herriko ekonomia lehen sektorean oinarritzen bazen ere (itsasoa eta baserria), gaur egun industria gailentzen da.

Argazkia: Eduardo Ferro Aldama

- **Biztanleak:** 6.812
- **Euskaldunak:** %34,78

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **37**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **13**
- Bideoak: **24**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- IRALeren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Tomas Abarrategi Goikoetxea *Tomas basoko* (1947)



1947an jaio zen Berangoko Sustatxa auzoko Basoeta baserrian. Gurasoak Goierrikoak ziren, Ama Azkorrosko baserrikoa eta Aita Kristobalenekoa. Ezkondu ostean, Berangoko Sustatzazarra baserrira etorri ziren errentan bizitzen. Inguruan lursail asko erosi zituzten eta bertan, Basoeta baserria altxatu zuten bertako haritzekin. Lau neba-arrebatan gazteeena izan zen eta etxean asko lagundu behar izan zuenez, urte gutxi egin zituen eskolan. Gerora, gaueko eskolan pare bat urte egin zituen soldaduzkara joan aurretik. Berangoko lantegi batean urte batzuk egin ostean, Ameriketara lan bila joan zen eta 25 urte zituela, diru apur bat zuela, Berangora itzuli eta harategi bat zabaldu zuen bertan. Bi seme-alaba izan zituzten eta gurasoak nagusiak zirenean haiek zaintzeko, bera eta bere arreba, familia osoarekin bueltatu ziren Basoetara.

Antoni Azkorra Areitio (1904)

Lau ahizpatan hirugarrena zen Antoni. Ama Berangokoa zuen eta aita, berriz, Mungiakoa. 95 urte zituen elkarriketa egin zitzaionean.

Teresa Bidaurreazaga

Berangoko Aldei etxekoa. Urte askoan esnea banatzen ibili zen Bilbon. 62 urte zituen IRALeren Bizkaiera Bildumarako elkarriketa egin zitzaionean.

Eustakia Bilbao Arrola *Kaki* (1927)



1927. urtean Berangoko Berangotxu baserrian jaio zen. Hamaika neba-arrebatatik bosgarrena izan zen bera. Ama Lemoizeko Basorda auzoan jaio eta gerora, Andrañan bizi izan zen; aita Algortako Fadura auzoakoa zuen. 47 urterekin hil zitzaizen aita eta oso gizon ezaguna zen, Algortako udaltzainen nagusia izan bai zen. Ama bere aldetik, [Rufino Arrola](#) trikitilari ospetsuaren arreba zen eta morroi lanetan Berangoko *jolastokira* etorri zenean elkar ezagutu zuten. Sei urterekin sartu eta 14 urte izan zituen arte ikasten jardun zuen Berangoko eskolan. Etxeko jeneroa, egurra, esnea... saltzera joaten ziren Neguri eta Algortako familia aberatsen etxeetara. Hogei urte zituela, erromeria batean ezagutu zuen gizona eta hiru urte batera egon ostean, berarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituen. Urteak igarota, Berangotxu bota egin zuten eta hortik aurrera, Berangotxubarri baserrian bizi izan da bere familiarekin.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Politika

1.1. Gerrako presoa, trintxerak eta bideak egiten

- **Hizlaria(k):** Abarrategi Goikoetxea, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Erref:** BGO-004/009
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:13:27. **Bukatu:** 00:14:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Aita nazionalistekin ibili zen gerran eta Francoren aldekoek preso hartu zuten. Hiru urtean aritu zen preso lanean: Picos de Europa eta Castellón de la Plana. Zahartzaroan itzuli nahi izan zuen Castellonera; dena aldatuta aurkitu zuen.

Transkripzioa

–Gerran, gure aita, ba ordun koixi eben hamen nazionalistakaz; ta gero ba urte asko egon zan, hiru edo, hiru urte edo holan, prisioneru egon zan.

–Non egon zan?

–Bai, bidiek eta, Francogaz prisioneru; Franco..., bidek eta eiten beharren.

–Non?

–Lehelau, lehelau egon zan Picos de Europan, ta gero handik... Picos de Europan trintxerak eiten, avanzadillatarako. Eta gero Castellón de La Planan bidek eiten eroan [ebezan] hara. Ez dakit. Ze gero bera, zahartegin, ba, beti gure ixen /guxen/ dau ikusi ha. Eta geuk ein otseun /eiotseun/ bieja bat prepara aita-amari eta joan den ikusten hara, baie ez euen ezebe ezetu ta triste etorri zan. Ze esaten [euen]: “Castellon de la Planan, dana mahatsa ta ene, zelakoa ta...” eta joan zanen ez euen ikusi holakorik, ta kanbiata duzti. Klaro, berrogei urte beranduau, ta dana kanbiaten da.

2. Baserria

2.1. Ogia zelan egin

- **Hizlaria(k)**: Abarrategi Goikoetxea, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Andere
- **Erref**: BGO-004/014
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:19:25. **Bukatu**: 00:21:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Garia
Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Errotara garia eraman eta 50 kiloko, bost errotariarentzako. Tomasen amak honela egiten zuen ogia: suaren kontra egiten zen epeletan, ur epelari legamia nahasi, irinarekin eta urarekin bola bat egin. Ontzi batean jarri estalita igo arte eta berriz landu, hiru aldiz. Gero labera sartu eta ordu erdi inguruan egiten da.

Transkripzioa

–Zelan eiten eban ogia?

–Bueno, iho, urune eiteko eroaten zan errotara. Errotarik, hori badekot memorin, pentsaten dot berrogeta hamar kilotik bost kobraten euen berantzako; ez zan dirurik ez, bost kilo, ahun kilotik hamar. Bueno, ba, gero ekarten da etzera ta eiten da, imiten da suen kontra, epeletan egon daiten, eiten da, etxaten jako ur, ur epela, eta eiten da ha nahasta, eskuegaz nahasta-nahasta. Eiten da bola bat, ta ein behar da ureri lebadure.

Pentsaten dot etxaten jakola ureri, bai ureri pentsaten dot. Bueno, auskeraz ez dakit uzena, baie bueno, lebadure. Eiten da, ein eta ein ta bajatu, ixiten da, imiten da [...] o bien kazuela baten imiten da ta tapaten da zera bategaz, trapu bategaz. Ixiten dalako bost minutu edo holan; ta eiten dau gora altza. Ta altzaten danien barriz bajaten da. Hirugarrenen bajaten danen, sartzen da bandeja baten eta sartzen da labara. Laban eiten da ordu erdi ingeru, eiten da eta urteten dau ogiek einde. Hiru bidar altza behar dau, e... Hirugarrenen bajaten dotsanen, ixiten dotso, imiten dau bandeja, urun apurtxu bet imiten da azpitik ez daiden agarra, eta imiten da ganen eta gero sartzen da labara ez daiden agarra bandejie. Ta ia urteten dau gero, ordu erdi barru, ogiek einde.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. "Basoko" goitizena (BGO-004/002)

Tomas bat baino gehiago daude Berangon, eta mendi aldean bizi denez, Tomas "basoko" deitzen diote. Bide bazterreko zuhaitzak moztu gabe daudenez, baso antza du Tomasen etxerako bide inguruak.

2. Esaera: Ai marti, marti, kakazu, narruek lepoan eta arranak kolkoan (BGO-004/004)

Aitak esaten zuen: "Ai marti, marti, kakazu (kakatsu), narruek lepoan eta arranak kolkoan". Martxoari eta hildako ardiei buruz ari zen aita.

3. Berango hondartzarik gabe geratu (BGO-004/005)

Baserriaren izena: Basoeta. Berangoko auzoei eta mugei buruz hitz egiten du. Berangok, berez badu hondartza, baina baten batzuen arteko traturen baten ondorioz galdu zuen.

4. Herritik baserrira, gurasoengana (BGO-004/006)

Gurasoak Goierrikoak ziren eta Sustatxa Zaharra baserrira ezkondu ziren. Gero, lurra erosi eta Basoeta etxea eraiki zuten; bertako haritzak erabili zituzten. Tomas herrira ezkondu zen, baina hamar urte han eginda Basoetara joan ziren bizitzera. Lau neba-arrebaren artean gazteena da.

5. Esnea saltzera astoz, gurdiz eta autoz (BGO-004/007)

Aita Negurira joaten zen esnea saltzera astoekin. Geroago, zaldiarekin eta gurdiarekin. 130 litro esne inguru egunero izateko orain baino behi gehiago behar ziren. Behiak gaixotuta, aita harrobian aritu zen lanean berriz behiak jarri arte. Arrebak banatu zituen esneak azken urteetan, autoz.

6. Ardiak eta behiak (BGO-004/008)

Gurasoek ardiak ere izan zituzten, eta 80ren bat ardi eta behi batzuekin ateratzen zuten bizimodua; gogorra, baina euren gustukoa.

7. Pinuak landatu ziren larreetan (BGO-004/010)

Gerra ostean lege bat atera zuen Francok basogintza suspertzeko. Arteria (artalde) kendu eta behiak utzi zituen aitak. Osabak, aldiz, San Salvador del Vallera eraman zituen ardiak.

8. Garia erein, ogi faltarik ez izateko (BGO-004/011)

Etxerako txerriak hasten ziren, eta koipea erabiltzen zen olioaren orde. Tomas umea zela, ogiaren errazionamendua egon zen; aitak lurra errentan hartu eta garia erein zuen. Horrela zuten nahi beste ogi. Amak egiten zuen ogia.

9. Zortzi eguneko elurtea martxoan (BGO-004/012)

Lehen orain baino elur gehiago egiten zuen; Tomas ikusita dago zortzi eguneko elurtea martxoan. Aldapan behera astoari ondo eutsi beharra zegoen holakoetan, irrist egin eta esne guztia gal ez zedin.

10. Azken errotak (BGO-004/015)

Errota asko egon ziren Berangon. Urak mugitzen zituen errotak lehenago, gero elektrizitateak. Errotarako ura batzeari "uetu" esaten dio. Larraurain geratzen da urarekin dabilen errota bat. Bi mutilzaharrena denez, ez du jarraipenik izango.

11. Eskola gutxi eta baserrian lan asko (BGO-004/017)

Berangora joan zen eskolara, baina askotan baserriko lanetarako geratzen zen etxean; esate baterako itaurreko aritzeko (idien aurrean). Gau eskolan beste urte bi edo egin zituen eta gero soldadutzara. Itzuli eta fabrika hasi zen; laster joan zen Ameriketara. Denbora gutxi egon zen han; Euskal Herrira etorri eta eta harakin hasi zen; ia berrogei urtean aritu da horretan.

12. Ia berrogei urte harakin (BGO-004/018)

Ameriketan irabazitakoarekin lokala erosi zuen eta han zabaldu zuen harategia. Lagun batekin eta bere kontura ikasi zuen ofizioa. Antzinako andrekin denbora gehiago zutenez, haragi gehiago erosten zuten, ez garestiena.

13. Janari prestatua errazago saltzen da (BGO-004/019)

Janari prestatuak saltzen dira orain. Horretan aritzen da Tomasen lagun bat. Harakinaren irtenbidea izan da janari prestatua saltzea. Bikoteetan biek kanpoan lan egiten dutenean, ez dute astirik sukaldarako.

14. Danantzako igual (BGO-004/020)

Bikoteko biek lan egiteak asko laguntzen du. Soldadak jaistea "lotsagarritasuna" (lotsagarria) da. Emakumeak ez dira inuzenteak eta laster helduko da berdintasuna. Kirolean ere ez dago berdintasunik.

15. Lan berdin eginez gero, berdin ordaindu (BGO-004/021)

Gaixotasuna dela eta, harategiko lana emazteak egiten du. Oro har, fisikoki emakumeak indar gutxiago du, baina ez beti. Emakumeen lanerako gaitasuna batzuetan handiagoa izaten da; gizonek ere ez dute denek berdin lan egiten.

16. Gogor beharrean (BGO-004/022)

Harategia zabaldu zuenean, lan asko egin zuen aurrera egiteko. Baserrian ere egun guztiko lana egoten da. Gazterik ohitu behar da beharrera. Orain ez dago lanik gazteentzat, eta etorkizun iluna ikusten du Tomasek.

17. Portugaletera ortuariak saltzera (BGO-004/023)

Baserrian, soroko lanaz gain, bendejak ematen du lan handia. Gurasoek Portugaletera joaten ziren astoan, ortuariak saltzera (bendeja). Ganaduarekin diru gehiago ateratzen da. Fabriketakoak ere ez ziren hobeto bizi. Franco hilda, denak hobeto. Aberatsak beti aberasten eta hobeto.

18. Zerbezerako garagarra pentsurik onena (BGO-004/024)

Ganaduarentzako pentsua zen: edo arto irina, edo arbi mamia eta irina, "torta" izeneko batzuk eta prentsatako garagarra (garagardo-fabrikakoa). Hasieran gutxik erosten zuten eta merkea zen, baina kontsumoa handitu zenean garestitu egin zen eta ez zen heltzen abeltzain guztientzat. Garestiagoa izanda ere, onena zen, baina nahikoa ez zegoenez, ganaduaren esne produkzioari kalte egiten zion jan aldaketak.

19. Baserrian astegun eta jaiegun lanean (BGO-004/025)

Gurasoak baserri zaleak izan ziren, baina Tomasek beti pentsatu du gauzak errazago egin behar zirela. Aitak zuzeneko salmenta errentagarriago ikusten zuen, baina lan egiteko modu hori oso lotua zen, astegun eta jaiegun. Berango guztian baserritar bat edo baino ez da geratu. Kooperatiba antzera, txandaka lanean egin daiteke lan,;hori izan liteke irtenbidea.

20. Nekazari gazteei lagundu egin behar die gobernuak (BGO-004/026)

Euskal Herriko janaria kanpotik dator. Berak ezagutu du inguru guztia ereinda, soro, baina orain ez. Gernika aldean soro gehiago dago. Baserriak gobernuaren laguntza behar du, eta prestatu egin behar dira gazteak kooperatibak sortu eta lan egiteko nekazaritzan.

21. Oinez toki guztietara (BGO-004/027)

Antzinako bizimodua tristea zen. Ganadua erosteko tratua diru barik egiten zen. Batzuetan azokan, beste batzuetan tratanteari. Azkenetan Torrelavegan. Aita oinez joaten zen ferietara. Behin Gordexolatik etorri zen oinez, bera eta ganadua biak errenka. Oso berandu hasi ziren kamioiak.

22. Harategiko okela ingurukoa zen hasieran, azkenetan kanpokoa (BGO-004/028)

Harategirako jeneroa inguruan erosten zuen; gero tratanteari; azkenean kanpotik etortzen zen kamioietan.

23. Hamabi urterekin, esnea banatzera Bilbora (BGO-006/003)

Ama gaixotu zenean, Bilbora esnea banatzera joaten hasi zen Teresa, hamabi urterekin. Trenez egiten zuen joan-etorria.

24. Panpinak eta komediak (BGO-006/004)

Neskak panpinekin eta jostailuekin ibiltzen ziren, amaren familiako bat oso aberatsa zelako. Umetan komediak antolatzen zituzten eta sarreratxoa kobratzen zuten. Pasarte bat kontatzen du.

25. Baserritarra izatearren, irainka (BGO-006/007)

Pasarte bat kontatzen du, batzokian gertatutakoa. Etxean erdaraz asko egin izan duela dio. Umetan baserritarrei irainka egiten zietela dio. Bilbon esnea banatzen aritzen zenez, erdaraz asko egiten zuen. Euskaldunek beren artean ere ez zuten egiten euskaraz.

26. Herriko jaietako jatordu berezia (BGO-006/010)

Herriko jaiak zirenean, jatordu berezitxoak egiten zuten baina ez oso berezia ere. Bakailaoa eta garbantzua jaten zituzten.

27. Frontoian ezagutu zuen senarra (BGO-006/011)

Berangoko frontoian ezagutu zuen senarra. Bost urtez izan ziren nobio.

28. Beltzez ezkondu (BGO-006/013)

Ezkontzara oinez joan zen. Jantzi beltza eraman zuen. Bezperan joan zen ile-apaindegira.

29. Garai bateko Berango (BGO-006/015)

Berango lehen politagoa zela dio. Lehen denek ezagutzen zuten elkar. Leioako mutilak etortzen zirela eta borrokan egiten zutela dio.

30. Gabonetako menua (BGO-006/019)

Gabonetan oilaskoa jaten zuten arrozarekin, eta azalorea ere bai. Intxaurrak, mandarinak eta turroia izaten ziren postrea.

31. Txarriboda eguneko menua (BGO-006/022)

Txarriboda egindakoan, gauez, denetarik jaten zuten. Egunerokoan oso gutxi jaten zuten.

32. Hilerri zaharra eta berria (BGO-006/023)

Etxean egoten ziren hildakoarekin, gaua pasatzen. Gero bederatzi egunez jarraian meza izaten zen haren alde. Hilerria non zegoen azaltzen du. Aita hargina zen eta hilerri berria eraikitzen ibili zen.

33. Berango erdaldunagoa (BGO-006/025)

Berango eta Getxo, Sopela eta Urduliz baino erdaldunagoak izan direla dio.

34. "Aitite benbeleko" kanta (BGO-006/029)

"Aitite benbeleko" kanta abesten du senarrak.

35. "Maritxu tailetako" kanta (BGO-006/030)

"Maritxu tailetako" kanta abesten du senarrak. Eroritako hortza teilatura botatzen zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com